

Gai orokorrak

2 3

KONTUZ

Zerga egutegi hau 2022ko azaroan egin da. Araudian harrezkero egindako edozein aldaketa kontuan eduki beharko duzu.

Gai orokorrak

Ogasun bulegoak

Hauk dira Arabako Foru Aldundiaren bulegoen helbide eta telefonoak:

- Helbide elektronikoa: **www.araba.eus**
- **Gasteizen:** Samaniego kalea, 14 - 01008 PK
Tel 945 18 18 18 — Faxa 945 123 012 — E-maila: **hacienda@araba.eus**
- **Laudion:** Alberto Acero plaza, 8 - 01400 PK
Tel 946 725 483 — Faxa 946 728 434 — E-maila: **ollodiohacienda@araba.eus**
- **Guardian:** San Juan plaza. Samaniegoren etxea - 01300 PK
Tel 945 600 135 — Faxa 945 621 069 — E-maila: **ohaciendalaguardia@araba.eus**

Derrigorrezko Dirubilketa: Probintzia plaza, 13 B - 01001 PK, Gasteiz.
Tel: 945 254 455 — Faxa: 945 254 474 — E-maila: **recaudacionejecutiva@araba.eus**

Ogasuneko bulegoetara joateko aldez aurreko hitzordua

Ogasuneko bulegoetan, **aldez aurretik hitzordua hartuta baino ez** da ematen aurrez aurreko arreta. Honela eskatu ahaliko da **aldez aurreko hitzordua:**

- Interneten bidez: **https://web.araba.eus/eu/ogasuna/hitzordua**
- Telefonoz: **945 18 15 10**

Jendearentzako ordutegia

- **Oro har:** 08:15etik 14:30era, astelehenetik ostiralera
- Jendearentzako ordutegi berezia, **Gasteizko bulegoan:** urtarrilaren 5ean, abuztuaren 4, 7, 8, 9 eta 10ean, eta irailaren 11n (Olarizuko jaia), 09:15etik 12:30era.
- Jendearentzako ordutegi berezia, **Guardiako bulegoan:** urtarrilaren 5ean eta ekainaren 23, 26, 27, 28 eta 29an, 09:15etik 12:30era.
- Jendearentzako ordutegi berezia, **Laudioko bulegoan:** urtarrilaren 5ean, martxoaren 31n, eta abuztuaren 22, 23, 24 eta 25ean, 09:15etik 12:30era.

Zerga argibideetarako telefonoa

Zalantzaren bat edukiz gero edo zergen gainean kontsultaren bat egin nahi izanez gero, **945 18 15 55** telefonora deitu dezakezu 08:00etatik 14:30era bitartean, astelehenetik ostiralera.

Zerga argibideetarako posta elektronikoko helbidea

Zerga arloko galderarik izanez gero, **consultasfiscales@araba.eus** helbide elektronikora bidal dezakezu, edo **https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ogasunarekin-harremanetan-jarri** webgunera jo.

Borondatezko ordezkariak

Borondatezko ordezkariak araututa dago apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretuan (ALHAO, 46. zk., 2010-04-30ekoa), zeina ondoko hauek aldatu baitute: otsailaren 13ko 6/2018 Foru Dekretua (ALHAO, 22. zk., 2018-02-21ekoa), martxoaren 16ko 11/2021 Foru Dekretua (ALHAOren 33. zk., 2021-03-24koa) eta azaroaren 23ko 52/2021 Foru Dekretua (ALHAOren 137. zk., 2021-12-01ekoa).

Borondatezko ordezkariak aukera ematen dio zergapekoari bere konfiantzazko pertsona edo profesional bat aukeratzeko, pertsona edo profesional horrek zergapekoaren izenean izapideak eta jarduerak egin, haren eskubideak egikaritu edo betebeharrak bete ditzan. Beraz, borondatezko ordezkariak ordezkatuaren izenean dihardu eta egiten duen guztia eta egindako guztiaren ondorioak ordezkatuaren gain uzten ditu.

Borondatezko ordezkariak mailak daude, zergadunak ogasunarekin egin beharreko izapideen arabera. Hain zuzen ere, **1. maila** BEZaren, atxikipenen, sozietateen gaineko zergaren eta abarren aitortpenak aurkezteko da; **2. maila**, zerga datuak kontsultatzeko, errenta eta ondare aitortpena aurkezteko, ziurtagiriak eskatzeko, erroldako datuak kontsultatzeko, errolda ereduak aurkezteko, beraien hornidura elektronikoz Egoitzan balio erantsiaren gaineko zergako erregistro liburuak eramateko bide ematen duten fakturazio erregistroak bidali eta kontsultatzeko, beraien hornidura elektronikoz Egoitzan fabrikazio zerga berezien gai diren produktuen kontabilitatea eramateko bide ematen duten kontabilitate idazpenen erregistroak bidali eta aurkezteko eta TicketBAI eginbeharra materialki betetzeko; **3. maila**, idazkiak, errekursoak etab. aurkezteko; eta, azkenik, **4. maila**, posta bidezko jakinarazpenak eta jakinarazpen telematikoak jasotzeko eta jaso izana adierazteko da.

Aldizkako zerga betebeharrak

Zerga zein den eta zergapekoa nor den, aldizkako autolikidazioak aurkezteko betebeharra, oro har, izan daiteke:

- **Hiru hilabeterik behin:** banakako enpresaburuak, profesionalak, entitateak eta nortasun juridikorik gabeko gainerako entitateak, oro har.
- **Hilean behin:** banakako enpresaburuak, profesionalak, sozietateak eta nortasun juridikorik gabeko entitateak, baldin eta haien eragiketa bolumena, 2022an, **6.010.121,04** euro baino gehiago izan bada (enpresa handiak) eta balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboak, baldin eta Zerga Administrazioaren egoitza elektronikoen bidez erregistro liburuak nahitaez kudeatzen badituzte edo Lehiatila Bakarraren Araubidean-Inportazio Araubidean (IOSS) erregistratuta badaude, eta 2022an **6.000.000** euro baino gehiagoko urteko aurrekontua duten administrazio publikoak.

BAK gakoa lineako izapideetarako (pertsona fisikoentzat bakarrik)

BAKa doako identifikazio bide bat da, erakunde publikoekin izapideak Interneten bidez egin ahal izateko. Gako horren bidez, zerga aitortpenak egin eta bidali (errenta, BEZa, atxikipenak, errolda, etab.), zerga ziurtagiriak lortu, zergei buruzko datuak edo errolda datuak lortu, borondatezko ordezkariak izapidetu eta bestelakoak egin ahal izango dituzu.

Hala ere, jakinarazten dizugu BAKrekin ezinezkoa dela jakinarazpen elektronikoz eskuratzea.

BAKa oso modu errazean eta doan lortzen da, inora joan beharrik gabe.

Hemen lor dezakezu: www.araba.eus/bak/

Zerga aitortenak bide telematikoz bidaltzea

Zerga aitortena telematikoki aurkeztu beharko dute honako zergapeko hauek:

1. Jarduera ekonomikoak garatzen dituzten zergapekoek, baita sozietateen gaineko zergaren zergadunek ere, baldin eta Ekonomia Itunean ezarritakoarekin bat etorritik kasuan kasuko aitortenak Arabako Foru Aldundian aurkezteko betebeharra badute.
Jarduera ekonomikoaren kontzeptua pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren on-dorioetarako zehaztutakoa da.
2. Hirugarrenen zerga aitortenak aurkezteko baimena duten profesionalak, baldin eta altan badaude Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren mendeko Baimenen Erregistroan, apirilaren 20ko 50/2001 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorritik.

Betebehar hori zerga aitorten hauei aplikatuko zaie:

Errolda aitortenak, urteko laburpenak eta informazio aitortenak: 036-037-170-171-179-180-181-182-184-187-188-189-190-192-193-194-195-196-198-199-20R--231-232-234-235-236-270-280-289-290-291-296-345-318-346-347-349-480-553-720-781 eta 782.

Ez zaie aplikatuko 036 eta 037 errolda ereduari, identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzen bada, ez eta 037 ereduari ere, baldin eta hori modu presentzian eta Arabako Foru Ogasunaren laguntzaz betetzen bada.

Autolikidazio ereduak: 110-111-115A-117-123-124-126-128-130-200-202-203-210-211-213-216-217-220-222-223-230-237-303-310-322-353-369-390-391-410-411-430-490-560-581-583 eta 763.

Azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduak arautua.

Laguntza programetan jasotzen diren zerga ereduak aitorten guztiak telematikoki bidali ahalko dira, egoitza elektronikoen bidez.

Zergadun partikularrek, pertsona fisikoak zein juridikoak izan, eta haien borondatezko ordezkariak Interneten bidez egin eta bidal ditzakete eredu hauek: 110-111-115A-117-123-124-126-128-130-202--210-211-216-217-222-230-231-237-303-310-322-353-390-391-410-411-430-480-553-560-581-583 eta 763.

Aitortenak telematikoki aurkezteko prozedura orokorra honako hau da:

- a) Aitortena aurkeztu duen pertsona AFAn egoitza elektronikora konektatuko da, dela Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak emandako laguntza programa baten bitartez, dela zuzenean **www.araba.eus** helbide elektronikoen bitartez.
Ziurtagiri digitala edo horretarako gaitzen duen beste edozein sistema beharko da AFAn egoitza elektronikora sartzeko. Egoitza Elektronikoa nola sartzeko den helbide honetan kontsulta dezakezu: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.
- b) Aitortena aurkeztu ondoren, aitortena eta, hala badagokio, atxikitako dokumentuak edo fitxategiak aurkeztu izana justifikatuko duen agiri bat sortuko da; horrez gain, zein data eta ordutan aurkeztu den ere jasoko da agirian.

Laguntza tekniko eskatzeko telefonoa: 945 569 028

Ordutegia: 08:00etatik 14:30era, astelehenetik ostiralera. Urtarrilaren 31n, apirilaren 25ean, ekainaren 26an, uztailaren 25ean eta urriaren 25ean 24:00etara arte zabalduko da ordutegia, zerga aitortenak aurkezteko epea amaitzeagatik.

Laguntza teknikoko helbide elektronikoa: diputaciondigital@araba.eus

Etiketak

Paperean aurkezten diren zerga aitortenetan (baldin eta ez badago betebeharririk aitortenak bide telematikoz aurkezteko) nahitaez itsatsi behar dira identifikazio etiketak. Etiketen eredua ALHAOn argitaratu zen 1996ko abenduaren 4an (139. zk.).

Behar izanez gero, eska itzazu, gehien interesatzen zaizun bidea erabiliz:

- Interneten bidez: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/etiketak-eskatzea>
- Telefonoz: **945 18 15 55**
- Posta elektronikoz: hacienda@araba.eus
- Foru Ogasunaren Errolda Kudeaketako eta Jakinarazpenetako Unitatearen Atalera etorrira; IFZren jatorrizkoa edo fotokopia aurkeztu behar da (aldez aurreko hitzorduarekin)

Lehenengo hiru sistemak erabiltzea gomendatzen dizugu, Ogasunaren bulegoetara alferrik ez joateko. Kasu horietan, etiketak zergadunaren zerga egoitzara bidaliko dira.

Laguntza programak (Doako deskarga Interneten bidez)

Hona hemen zer laguntza programa eskura daitezkeen <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/laguntza-programa> helbidean:

- Zerga erduetarako laguntza programa: 110, 111, 115-A, 123, 180, 182, 184, 190, 193, 20R, 200, 203, 220, 223, 232, 303, 310, 347, 349, 390, 391 eta 720.
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren laguntza programa: 100 eta 714 ereduak.
- Errolda erduetarako lineako laguntza programa: 009, 036 eta 037 ereduak.
- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergarako laguntza programa: 650, 651, 652, 653, 654 eta 655 ereduak.
- Fabrikazioaren gaineko zerga berezien laguntza programa (EMCS/SIANE), administrazio agiri elektronikoak egin eta jasotzeko.
- Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren laguntza programa: 600U, 600R, 600M, 600P, 600S, 630 ereduak.
- Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren laguntza programa.

Estankoetan salgai dauden inprimakiak

Interneten ere doan eskura daitezke: <https://egoitza.araba.eus/eu/zerga-ereduaren-bilatzailea>

Ahal dela ez joan Ogasuneko bulegoetara.

Inprimaki hauek eros daitezke estankoetan:

- Balio erantsiaren gaineko zerga: 303 eta 390 ereduak.
- Hirugarren pertsonetikiko eragiketen urteko aitortpena: 347 ereduak.

Ordaintzeko moduak

Ordainketa zergabilketan laguntzen duten finantza erakundeetako edozeinen bidez egin daiteke. Gaur egun, hauek dira:

Kutxabank, Deutsche Bank, Santander, Sabadell, Bankinter, Bankoa Grupo Abanca, BBVA, Targobank, Ibercaja, CaixaBank, Caja Rural de Navarra, Laboral Kutxa, Cajamar Caja Rural.

Interneten bidez bidaltzen diren autolikidazioetan, ordainketa bankuan helbideratuta edo ordainketa gutunaren bidez egiten da. Ordainketa gutuna zergabilketan laguntzen duten eta lehen aipatutako finantza erakundeetako edozeinetan erabil daiteke, edota ordainketa pasabidearen bidez.

Ordainketak Bizum edo NireOrdainketa Wallet mugikorreko aplikazioaren bidez egiteko aukera ere badago. Hortaz, funtzionalitate berri horren bidez, modu seguru, erraz eta jasangarrian ordaindu ahal izango dira foru aldundi honen eskumeneko zergak, tasak edo zerbitzu publikoak.

Identifikazio fiskaleko zenbakia

Pertsona fisiko edo juridiko guztiek eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan aipatzen diren entitate nortasun gabekoek identifikazio fiskaleko zenbaki bat (IFZ) eduki behar dute, eta nahitaez erabili behar dute zergen arloko harremanetan eta zergetan eragina eduki dezaketenetan, halaxe xedatzen baitu uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuak (ALHAO, 88. zk., 2008ko abuztuaren 4koa).

Pertsona fisikoen, pertsona juridikoen eta gainerako entitateen IFZk Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak ematen ditu. Horretarako, **ALDEZ AURREKO HITZORDUA** eskatu beharko da Interneten bidez (<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/hitzordua>) edo **945 18 15 10** telefonoan. Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- **14 urtetik beherako pertsona fisikoen legezko ordezkariak** 009 errolda eredua beteta aurkeztu behar dute urtarrilaren 28ko 41/2009 Foru Aginduan (ALHAO, 19. zk., 2009ko otsailaren 13koa) eskatzen den dokumentazioarekin batera.
- **Espainian bizi ez eta AIZ behar ez duten pertsona fisikoak** 006 errolda eredua beteta aurkeztu behar dute urtarrilaren 28ko 41/2009 Foru Aginduan (ALHAO, 19. zk., 2009ko otsailaren 13koa) eskatzen den dokumentazioarekin batera.
- **Pertsona juridikoen, sozietate zibilek, ondasun erkidegoek, jabeen erkidegoek eta gainerako erakundeak** 036 errolda eredua edo 037 eredua beteta aurkeztu behar dute urtarrilaren 28ko 41/2009 Foru Aginduan (ALHAO, 19. zk., 2009ko otsailaren 13koa) eskatzen diren agiriekin batera.

Notarioak gaiturik daude merkataritza sozietateen behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia Internet bidez eskatu eta lortzeko.

Zerga ziurtagiriak, zerga aitorten kopiak eta ordainketa zatikapenak

Jarduera ekonomikoak garatzen dituzten zergapekoak, baita sozietateen gaineko zergaren zergadunak ere, baldin eta Ekonomia Itunean ezarritakoarekin bat etorriz kasuan kasuko aitorten Arabako Foru Aldundian aurkezteko betebeharra badute, **behartuta daude ziurtagiri hauek Interneten bidez (egoitza elektronikoa) lortzera, bai eta eskaerak egitera ere:**

- a) Zerga betebeharrak egunean dituztela dioten ziurtagiriak (azpikontratatistak, zerga egoera, dirulaguntzak, administrazio publikoekiko kontratuak).
- b) Beste ziurtagiri batzuk (landa edo hiri ondasun higiezinak, balio erantsiaren gaineko zergaren errolda, jarduera ekonomikoaren gaineko zerga eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, errolda egoera, birsaltzaile izaera —BEZaren FAren 84. Bat 2. g artikulua—).
- c) Ordainketa zatikatzea

Aipatutako zerga ziurtagiriak momentuan eskura daitezke Interneten bidez (www.araba.eus;) egoitza elektronikoa. Halaber, **zerga aitorten kopiak** atera ahal dira Internet bidez "Banakako aitorten aurkeztea" edo "Errenta eta ondarea - Banakakoak" izapideen barnean, "Aitorten kontsulta" atalean.

Interneteko egoitza elektronikoa erabili ezean, ziurtagiriak eta zerga aitortpenen kopiak ondoren zehazten den moduan eskuratu ahalko dira (azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduari jarraituz Internet erabiltzera behartuta daudenen kasuan izan ezik):

- **Interneten bidez:** web.araba.eus/eu/ogasuna/zerga-ziurtagirien-eskaerak ziurtagiri elektronikorik izan beharrik gabe, galdetegi bat betez. Modu horretan, ziurtagiria zure etxean jaso ahalko duzu.
- **Telefono bidez** (zerga betebeharrak egunean dituztela dioten ziurtagiriak bakarrik, baldin nahitaez Interneten bidez –egoitza elektronikoa– eskatu beharrik ez badute), **945 18 15 55** zenbakira deituta. Ziurtagiriak postaz bidaliko dira interesdunaren zerga egoitzara.
- **002 ereduaren bitartez** (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/modelo-002-solicitud-de-certificados> webgunean eskura daiteke), posta elektronik (hacienda@araba.eus) bidal daiteke, edo Foru Ogasunaren bulegoetara eraman (aldez aurreko hitzorduarekin). Ereduarekin batera IFZren fotokopia aurkeztu behar da.

Postaz bidaliko dira eskatzailearen zerga egoitzara, Ogasunaren bulego batean jaso nahi dituela adierazi ezean (aldez aurreko hitzorduarekin).

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 59/2009 Foru Dekretuaren 10.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (2009ko uztailaren 27ko ALHAO, 85 zk.), ezin izango da ziurtagiririk eskuratu Administrazioak dagokion likidazioaren bidez zerga zorra zehazteko duen eskubidea preskribatuta duten zerga betebeharrei loturiko datuei buruz.

Jakinarazpen elektronikoa

Bide elektronikoz jakinarazteko zerbitzua urtarrilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuak arautzen du. 2020ko irailaren 7an jarri zen indarrean.

Paperezko jakinarazpenen ordez jakinarazpen elektronikoak jasoko dira.

Sozietateen gaineko zergaren zergapekoak edo, hala badagokio, haien ordezkariak **behartuta daude** administrazio komunikazioak edo jakinarazpenak bide elektronikoen bidez jasotzera.

Jakinarazpen elektronikoak egoitza elektronikoan **daude eskuragarri**, "Nire jakinarazpenak" atalean. Horretarako, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan onartzen den identifikazio bitarteko elektronikoa eduki behar duzu. Hemen duzu informazioa: www.araba.eus; egoitza elektronikoa; "Nola sartu" sakatu (dena den, jakinarazten dizugu BAK ziurtagiriarekin ezinezkoa dela jakinarazpen elektronikoak eskuratzea).

Oso adi: jakinarazpena eskuragai jartzen denetik hamar egun pasatzen badira haren edukira sartu gabe AFAREN egoitza elektronikoan, jakinarazpenari uko egin zaiola pentsatuko da eta, ondorioz, egintzat joko da legezko ondorio guztietarako.